

Izarraitz mendikatea

Sesiarte eta bere inguruan zehar ibiltzen

Xabier Aranguren



Mendikate konplexu honen kareharrizko inguru basati asko ezagutuko ditugu eta baita ere ingurugiroaren bi aurpegi ezberdinak: naturaren edertasunaren kontserbazioa eta bere suntsipena

Xabier Aranguren

Zumaiatik gure begirada Izarraitz aldera zuzentzen badugu, bi tontor ikusiko ditugu, bi ahizpa bizkiren antzera, bata bestearen ondoan. Agiro eta Sesiarte, Erloren begiradapean, berezko nortasuna duten mendiak dira.

Zestoatik hurbil egon arren, mendi hauen hegala Debako lurretan daude, Lastur eta Endoia hurbil. Sesiarte da garaiena, baina horrek ez dio edertasunik kentzen bere senide txikiari.

Ibilaldia Zestoako Santa Kruz enparantzatik hasiko dugu. Zubimusuko zubiraino jaitsi eta, Urolaren beste aldean, eskuinera zuzenduko gara Lili jauregiraino. Sastarrain baserrira doan pistatik abiatuko gara, baina bertaraino heldu baino lehen ezkerredera hartuko dugu.

Errekaren murmurioa atzean utzirik, eskuinera joko dugu hurrengo bideguru-

tzean eta goraka, gure lehenengo izerdi tantak hasiko gara botatzen. Aldapa gora etengabe, Olazabal Azpikua baserri ederraino helduko gara. Hemendik aurrera aldapa gogortu egiten da. Laster Olazabalzar eta Olazabalberri baserriak atzeak utziko ditugu eta pista bukatu egingo da. Bidean gorantz segituko dugu eta bi hesi pasatuko ditugu. Bidegurutze batera iritsitakoan ezkerredera hartu behar dugu. Berehala, beste hesi bat pasatuko dugu. Bidea, pagadia eta pinudiaren artean, bidea bateraino eramango gaitu. Beste hesi bat pasa eta galtzada bihurtuko zaigu bidea.

Gorago, bailara idor bat igaro eta gero, lepo batera aterako gara eta hemendik Sagarretako Sakonara. Bidetxoa, zelai eta basoaren arteko muga, izen bereko baserrira heltzen da eta bertan pista bihurtzen da. Pista Zelaiteatikiko lepora doa.

Zelaiteatikiko bidea ondoan, atsedentxoa hartu ondoren, eskuinera hartuko dugu mendian gora. Txabola eta pinu landaketa berri bat pasatuko ditugu. Lur malkartsutik segitu behar da, bide baten urratsetatik, urritzen artean. Horrela, Sesiartera helduko gara. Buzoia eta erpin geodesikoa ditu. Ikuspegiak dotoreak dira: itsasoa edo Pirineoak ikusteko aukera izango dugu. Gertuago, Izarraitzen erliege konplexua, kareharrizko pitzadurak eta mendixka hauen artean galduta aurkitzen diren sakonak.

Leku beretik jaitsiko gara pinudiraino. Pinudiaren azpialdean bide bat hartuko dugu eta Arrateko Sakonara jaisten hasiko gara eta eskuinean, sakontxo batean, elurzulo bat ikusiko dugu. Sakonera irtingo gara bere iparraldeko lepotik. Pinudiek lekua zatartzen dute.

Pistan beheara hasiko gara eta Oltzarretako lepora heltzen gara eta handik, Beliosoro baserrira. Agian, pisten ugaritasuna dela eta, ez gara zuzenean lepora jaitsiko baina, lepoa eta baserriaren arteko leku batera aterako gara. Dela dela, baserrira heldu behar gara.

Hurrengo helmuga Beliosorobekoa baserrira da. Handik lurrezko pistatik eskuinera joko dugu, berriz Olazabalberri eta Sagarretako Sakonaren arteko bidegurutzeraino. Hemendik bidea ezaguna da, beraz... aurrera

Zestoako, patxadaz ezagutu beharrekoa

Zestoako hiribildua XIV. mendearen bukaera aldean eraikia izan zen, urte haietako asentamendu harresituaren tipologia bereganatuz. Garai hartako sarbidea zen jatorrizko ateetarikoa bat ikusi daiteke oraindik, San Jose (Arretxekoa lehen) eta aldatua izan den bigarren bat, Garbiñe izenekoa (Palankadokoa lehen).

XVI. mendearen aldean parroko eliza eraikitzen hasi zen aurreko tenplu baten gainean. XVII. mendean aldre barroko bidez eraikina aldatua eta aberastua izan zen, eta XVIII. mendean kanpandorre baten eraikuntzak errematea eman zion. Barrukaldean taila nabarmenak daude ikusgai.

Udaletxea Gipuzkoan eraiki ziren lehenetariko bat izan zen (1601). Jauregien artean Portalekua eta Lizentziadokoa dira gailentzen direnak. Apalagoak, Arretxekoa eta Dorrea ditugu. Herriko arkitekturaren erakuskari bikainak San Juan Baseliza eta Lizarraitz baserrira dira. Etxe asko armarriz atondurik agertzen dira: Pagio, Lizarraitz, Artia, Iraeta... baina dudarik gabe, Zestoako ondare historiko-artistiko gailenduena Liliko multzo ezaguna da. Berataz gordetzen dira oraindik, jauregia (XV-XVI. mendeetan jasoa), jatorrizko orubea, Lilibe deitzen zaiona, jauregia eta errota zaharren aztarnei (Errotatxo) eta burdinolei (Liliko burdinola Nagusi eta Txikiaren urtegi eta ubideak) ezarria. Bainuetxea, berriz, XIX. mendekoa da.



Lili jauregi berezia.